



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades e  
Investigación  
Dirección de Investigación

EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2017ko abenduaren 15ekoa, 2017-2018 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2017ko ekainaren 13ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituen.

Agindu horren 30.artikuluaren arabera, laguntza berriak ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakarraren bidez gauzatuko da, hautapen-batzordearen ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta Berariazko aholku batzordeen ebaluazioa eta hautapen-batzordeak helarazitako proposamena

#### EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzak eta dagozkien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea 2017-2018 ikasturterako.

Kontratu horiek 12 hilabetetarako izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, arloak eta lehentasuna zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 29. artikuluko 5. atalak zehazten duen bezala beteko dira.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.- IV. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratzearen arrazoiak zehaztuz

#### AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, bere aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesadunek, Hezkuntza sailburuari zuzenduta. Horretarako epea hilabetekoa da, ebazpen hau [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta bihamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko abenduaren 15a.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea